

## Zantigitu guztien ganetik... ikuskizuna Zeanurín

12. orrialdea

## Dimako Jaione Ibarrek Ikergazten aurkezpena egin dau

UEUK antolatuten dauan Ikergazte euskal ikerlari nazinoarteko kongresuan aurkeztu dau Jaione Ibarrek testu generoak erakusteko baliabide didaktiko baten gaineko ikerketea. Kongresua Baionan izan zan maiatzaren 27, 28 eta 29an. 13. orrialdea



## Txapel ugari ekarri dabez pelotariak kategoria desbardinetan

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 319

2019ko bagilaren 4a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Sei alkate barri eta oin arteko beste lau

**M**aiatzaren 26ko hauteskundeak alkate barriak ekarriko ditue Arantzazu, Artea, Dima, Igorre, Ubide eta Zeanurira, nahiz eta kasu gehienetan ez dan aldatu agintean dagoan partidua. Areatzan, Bedian eta Zeberion

oin artekoak segiduko dabe.

Bizkaiko Batzar Nagusietarako eta Europarako, EAJ-PNVk lortu dauz boto gehien, baina EH Bilduk be aurreko hauteskundeetan baino boto gehiago lortu ditu. 8. eta 9. orrialdeak



## Igorreko jaiak uda giroko lehenengoak

**H**ilaren 7an hasiko dira eta 16an amaitu.

Hamar egun luze eta bederatzi gau laburretan, hirorogei ekintzatik gora izango ditue igorretarrak eta Igorrera hurreratzen diranak ondo pasetako. Egitarau potolo eta ugaria prestatu dabe igorretarrak edade eta gustu desbardinetaoak gustuko jarduerak topau eta jaiari parte hartu dagien.

Skabidean and The Black Birds, Bad Sound, Raust, Mafalda, Alerta Gorria, Brigade Loco, The Rodeos, The Mockers eta Xavi Sarriaren kontzertuak ipiniko dabe martxea astegoieneko gaubetan. Erromeriak be ez dira faltauko, ezta kaleak girotzekoak be. Gainera, umeentzako jolasak, antzerkia, kirola, lehiaketa gastronomikoak... eta aurtengoan gainera erreka jaitsieria be programau dabe herriko jaietan. 7. orrialdea



### AREATZA/LEMOA

## Udako ugerlekuak hilaren erdialdean zabalduko ditue

Lemoako udako ugerlekuak 15ean eta Areatzakoak 17an zabalduko ditue atek, urri lehenengoaren erdialdera arte, goizeko 11:00etatik iluntzera. Aire librea eta Arratian bertan bainua hartzeako dirua arazo izan ez daiten, norbanako edo familiaren egoera kontuan hartzean daben prezio desbardinak dagoz Areatzako ugerleketan zein Lemoakoetan sartzeako be. 6. orrialdea

### AREATZA

## Areatzan errekea garbitzeko ekimena eratu dau eskoleak hilaren 11rako

Ekimen hori Zaplastlloka izeneko kanpainearen barruan izango da. Kanpaina horretan herritarrak zein ikasleak, plastikoaren kontsumoak gaitzitzeko hitzarmena sinatuteko aukerea izango dabe.

Bagilaren 11n, errekea eta inguruetako zaborra kendu eta bildutako plastiko eta zaborra garbigunera eroango dabe boluntarioak Areatzako Udalaren laguntzeagaz. 5. orrialdea

### IGORRE

## Bizkaiko Probintzia Auzitegiak Costumeroren aldeko autoa emon dau

2017ko abuztuaren 4an, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza sailak indarrez kendu eutsan bost urteko alabea Irune Costumero Igorrekoari, tutoretza bere gain hartzeako eta behin-behineko egonaldia aitari emoteko. Bizkaiko Probintzia Auzitegiak barriz, "delitu zantzuak" ikusi ebazan horretan eta "ama-alabak banandu ebazan ebazpena emon eta berau gauzatzeko aginduak emon ebezanen kontrako inputazio-autoa emon behar dala" dino kontrako errekursorik onartzen ez dauan auto irmo baten. Autoa amaren aldekoa izan bada be, oindino ama-alabak bananduta jarraituten dabe beste epaiketa baten zain. 5. orrialdea

Adi egon! ENTZUMEN ZENTROA ekainaren 10ean ZABALIK

**Olaetxe**  
OPTIKA ZENTRUA

WIDEX  
HIGH DEFINITION HEARING

94 657 70 03 Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)



# Literatura txokoa

## ZUBIGILEAK

Triangelu batek hiru erpin daukaz. Holan dinotsagu euskeraz, hiruki. Istorio hau hiruki elegante bat da, hiru erpin daukazana eta ertz ugarri. Izan be, Alfonso Zapico, Fermin Muguruza eta Eduardo Madina ez dira edonor. Zapico estatu mailako komikigile handienetakoa da, *Dublino* lanagaz 2012ko saria eskuratu eban eta lan horren ibilbidea azaltzen, kontau euskun zelan Bilbok berebiziko garrantzia eukala beretzat. Gerora, *La Balada del Norte* ikaragarria, ala lehena *Cafe Budapest* gogoangarria egindakoa da. Oingoan erronka askoz gaxagoa zan. Fermin Muguruza musikaria eta Eduardo Madina politikaria alkartu, euren bizipenak zelan alkar kurutzatu

diran isladatu, azken hogeiogetamar urteotako pasadizoak aztertu eta zubilana egin. Izan be, Madina Muguruza zalea zan, eta Fermineri Eduardoren aurkako bonbak barruan lehertu eutsan. Hor korapiloa egoan askatzeko. Eta *Zubigileak* hori da, poronpilak askatuteko gida labur bat. Deserosoa sarriegi. Atsegina gitxitan. Hor aterako dira politikari sozialistak bere alderdi barruan bizi izandako kontraesan latz eta mikatzak, han azaleratuko dira Irungo musikariak jasandako momentu mingotsak, GAL batetik, Angel Katarain (M-ak taldeko kidea) lagunaren samina, arreba Yoyes hil ebenean... Holan beraz, komikia bihurtzen da erreka bat, non bat egiten daben

errekasto pilo batek, anekdotak, abesti mordoa, Irun eta bere kale eta auzoak (Mosku), Madrilako politikagintza, erakunde armatuak, egunerokotasuneko printzak hain derrigor eta ezinbestekoak... Astiberrik aspalditxoan egin eban apustu euskerazko komikigintzearen alde, eta hau zurririk izango da arrakastatsua eta ausartena. Istorioa ez da lineala eta, eta hiru lagunak arteko topaketa "kasual" batetik, Zapicok 30 urte eta hainbat uniberso batzean ditualako, alde batera itxia ohikoak izan diran komiki gidioak. Bidexkatxoak, sarri askotan, autopistak baino trafikoko gehiago hartzean dakie. Adibidea, hemen...

@fantomastxiki

Alfonso Zapico

Zubigileak

Astiberri Ediciones

200 orrialde



**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
09:00etatik 22:00etara  
**Bagilaren 3tik 9ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

**22:00etatik 09:00etara**  
Cutierrez. Amorebieta-Etxano.

**Bagilaren 10tik 16ra**  
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

**22:00etatik 09:00etara**  
Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

**Bagilaren 17tik 23ra**  
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

**22:00etatik 09:00etara**  
Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Gometza Ana. Francisco Kortabaria 2. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 38 50 14  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15  
**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01  
**Parketxea** 94 673 92 79  
**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51  
**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90  
**Euskotren** 902 543 210  
**Areatzako Notarioratza**  
94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.  
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbizua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbizua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbizurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbizurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heldzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbizurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaoetik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbizurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbizurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaoetik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heldzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbizurik.

**Ermitabarri-Arrigorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

TELEFONO INTERESGARRIAK

**Babesleak:**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzio burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizitatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Herritarrai

2015ean herritarrak gudan ipinitako konfiantzeari esker Dimako alkatea izan naz azken lau urteotan, eta aitortu behar dot itzelezko ohorea izan dala niretzat. Hiru klabe nagusitan saiatu naz behar egiten: euske-rea, bardintasuna eta ongizatea.

Lau urte, urte gitxi dirala esaten dabe batzuek, eta asko dirala beste batzuek. Nik aitortu behar dot pentsau baino laburragoa egin jatala, nahiz eta momentu konkretu batzuk luze egin.

Lau urte honeetan momentu politik eta momentu gogorak bizitea tokau jataz. Ebatzi errazak eta ez hain errazak, hori bai Dimarako eta dimoztarrontzako onenak izango zirala konbenziduta hartu dodaz ebatziok, lantaldearen eta herritar askoren babesagaz.

Lau urte honeetan ezin izan dogu egin gura genduan guztia, ezin dogu aitzu miloe bi t'erdiko zorretik gontzala eta inbersinoak egiteko orduan horrek asko baldintzatu gaitu. Gure aurreko legegintzaldian horri aurre egiteko plana egin zan eta horri ekin deusagu, dana dala apur bat libreago egon gara atzen urte biotan inbersinoai begira.

Ze herri zoragarria daukagun aurretik banekian be, oindino zoragarriago ikusteko aukerea emon deusta lau urteko tarte honek.

Alkate izan aurretik herriko talde askotan egin dot behar edo zeozertan

lagundu, eta egia esan oso konziente izan naz herian daukagun altxorraz: bertako alkarteak eta alkarteetan hainbat behar egiten dauan jentea. Edota alkarteetan ez dagozanak baina momentu puntualetan lagunduteko prest dagozan herritarrak. Horrek guztiak barik ez litzateke izango Dima hain bizia, zenbat bider entzuten dogun "Dimen beti dau zeozer!", ba zeozer hori danoi esker da!

Dimaren alde egiten saiatu naz beti, hartutako ebatziakaz, eta ez inoren kontra, Dima hobetuteko asmoa izan dot beti; eta ez daukat dudarik hurrengoak be horretan ekingo dabela. Eta ni ez naz urrun ibiliko, lagunduteko prest egongo naz!

Pozik eta ilusinoz egin dot behar, itzelezko ilusinoagaz pasetan dot gure erreleboa, eta itaropena daukat herritarrak horretan ipiniko dabela konfiantzea.

Ezin dot, idatzi hau eskerrak emon barik amaitu, horregaitik, eskerrik asko herritarroi, alkarteetan beharrean zabizienoi, Udaleko behargin guztiai, inguruan isilean ibili zarien inurri guztiai, taldekideoi eta, zelan ez, etxeko danoi, lau urte honeetan era batean edo bestean lagundu deustazuen guztioi!

Alkate barria eukiko dogu herian, suerterik onena opa gura deusat ibilbide barrian, eta Dimagaitik me-rezi dauala behar egitea azpimarratu gura deusat.

Lau urte joan dira, beste lau etorriko dira, eta beste lau, eta beste... segidu daigun danok gure Dima hobetuten; danon artean posible da!

NEKANE INTXAURTZA ETXEBARRIA

## ERETXIA

### Mobikorren bufoi

L ehengo egunean zeozertaz konturatu nintzan, lau lagun gengozan mahai baten inguruan eserita, garagardoa soberan, barriketaldirako gaiak be. Ni etetik 600 kilometrorra, eurak kilometro eskasera eta, bat-batean, alkarrizketea isiltasun luze baten murgildu zan. Laurok mobikorra eskuan geunkan, gure begiraden zeruertza ez egoan pantailea baino urrunago, bata bestearen aurrean gengozan eta gure begiradak ez eben talka egiteko aukerarik. Lagun handiak gara, eta asko jota hilean behin ikusten dodaz. Mobikorra alde batera itxi eta jolas bat proposatu neban, ordu bete mobikorra ikutu barik, persona bakotzak berea eskoian eukan lagunari emongo eutsan tranparik ez egoteko. Hasikera baten urduri hasi eben jolasa, atzenean ordu bete ez ezik hiru ordu emon genduan holan, jokoa aurrera joan ahala errazagoa egiten jakun. Telefonoak itzuli genduzanean, isiltasuna bueltau zan minutu pare batez.

Munduko adikzinorik handie-nean bizi gara, normaltasunaren sabelean jantzan droga itu horren menpe. Adituen arabera egunean 150 aldiz begiraten dogu mobikorra, bi eta hiru ordu artean. Baina normaltzat hartzean dogu eta adikzinoz berba egiteak bertigoa emoten deusku, danok egiteak ez dau esan gura arazo bat ez danik.

Telefonoaren kablea kate ikusezinengaitik aldatu dogu, momentu galduen menpe bizi ahal izateko. Beti pantailearen esanai amen, arima bako gorputzak izango bagina bezala, oinez beharantza begira, inor agurtu barik, inori begiratu barik. Eukiontzia eskaparetean hutsik jarriko bagendu bezala. Ez al da polita? Aspaldi ikusi ez diran lagunak bata bestearen aurrean begiak telefonoaren distiran itsatsita. Zure bizitzako kontzertua bi gigitan barriz inoz ikusiko ez dozun



IMANOL SALVADOR  
Idazlea

azti modernoan lana erraztuz. Dana hilerio 22 euro ordaintzearen truke.

Pantailak ez gaitue maite, honek itzaltzean, euren isladan, pasibidade hutsez beteriko arpegien barri emoten dabe. Barre edo negar egiteko aukerea emoten deuskue, bai, baina modu faltsu eta gezurti baten, edozein paradisu ukatuz lau hormaren arteko bakardadearen truke.

Hau ez da teknologiaren aurkako gorrotoz betetako testu bat, danok daukaguz mobikorra, ordenagailua, telebista, tableta eta abar, berba honeekaz zera kritikau gura dot, maite dogun jenteezagaz gagozanean momentu asko galtzean doguzala grazia bako *mem*e ziztrin bat ikustearren. Plan eta momentu asko ukatzen doguzala etxean Netflix ikusten geratzearren. Eta askotan gurago izaten dogula olatuen soinua bozgorailuetatik entzun, itsasoaren haizea arpegian senti-dutea baino.

Bizipenak ebagi eta itsatsi egiten doguz eta disfrutau beharrean kameraren bitartez biziten doguz, abestu, barre, salto edo negar egiteko denpora preziazdu bat galduz. Zein polita dan bizitza sofatik begiratuta! Begiratu zenbat lagun daukadazan Facebooken! Hori bai, bat be ez dago prest nigaz kaina bat hartzeako.

Gaur egun bizitza pantailea bat da, eta sare sozialen laguntzaz *show* formatoan ikusi daiegegu, munduari erakutsiz ze guapoak eta perfektuak garan eta ze pozik bizi garan, nahiz eta kamera itzaltzean negar egiteko gogoia izan. Gezurra *liken* truke, paradisia 30 segundoko bideo baten, nortasuna *online* salgai.

Saiakera egitea ez dago soberan, hurrengo lagun arteko "bartzarrean" froga egitera konbidatzen zaitut. Hartu zure mobikorra eta eskoiean daukazun personeari emon berak gorde dagian, seguru gustuko izango dozula.

Hipokrita hutsak gara, adibiderik garbiena? Nik testu hau mobikorrean idatzi dot, eta zu irakurritakoagaz ados zagoz, baina gauza bera egiten dozu.

bideo amaibako baten. Zuen bizitzak interneten edozeinen esku,

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Estalgi



Hotza dala, euria dala, gainetik ipinten dan erropeari estalgi esaten jako (*estálgie/estálkie*, ahoskatuta). Egun, beroki berbea entzuten da gehiago zentzu honetan. Adibidea: "Hara, Jesus Umia,/gure Jaun da Erregia,/estalgi barik, hotzez,/gogortuko da askan!" (Arratian jasotako koplazaharra). Estalgi lapikoaren tapea be bada. Ohean, hotza kentzeako, erabilten dogun ohegainekoari be estalgi esaten jako. Eta baita eraikuntzetan, teilatu antzeko dan egitureari bere.

Agirre Lehendakaria 11, Igozko  
94 631 92 43  
zarpi@zarpi.com  
facebook.com/zarpihaizetara.arrantia/  
instagram@zarpi\_haizetara

Euskal Herri Osoko Eguneroko Jakiak  
Euskal Jantziak  
Bertoko Artiseu eta Sartzaileren Lanak

Gora Igozko Jaiak!





## LUMATUTEN

JOSE MARI  
KORTAZARErrogatibak:  
Arratiako  
ondare kultural  
inmateriala

**A**urten be badatoz. Bagilaren edo ekainaren 15ean. Zapatua. Arratiako herri guztietako, alderdi desbardineta, izakera diferentetako 400 arratiar baino gehiago batuko da Urkiolan. Kirol zaleak oinez Zeanuritik, Dimatik, Igorre edo Arteatik. Autobusak herriz herri izena emon dauan jentea batzean. Gazte batzuk bizikletaz. Familia kopuru handi bat kotxez. Urkiolan batzeako goizeko 11etan.

Aurten Joseba Segura Etxezarraga gotzain laguntzaile barrira izango da meza buru. Bere aitita-amamak arratiarrak izanik etxeko sentiduko da. Eguna prestatzen Areatzako parrokiara, jubiladuak, eta abar.

Arratiako errogatibak aintzat hartu eta laguntzeko orduan egon da eztabaidarik gure he-

rietan. Egon dira lagun batzuk mankomunitatean iso esan ostean, udal mailan arre esan dabena.

Aurten bada datu barri bat.

Bitoriko Legebiltzarrean onartu ei dabe kultura ondare inmateriala be jasoteko lege bat, alderdi gehienak aintzat hartu dabena. Arratiako alderdi nagusiak be bai.

Gertakari edo agerpen zehatz bat zerrenda honetan sartu behar dan unean etorri daiteke eztabaida. Holakoetan ona izaten da mundu zabalera begiratzea.

UNESCOren erispideak jarraituz, munduan zehar emoten diran beste errogatiba eta erromeriakz batera, kultur ondare inmaterialaren adibide argia litzateke hau. Japonian, Korean, Kroazian... munduko hamaika lekutan gu baino biziago eta bizkorrago ibili dira eta euren herrietako adierazpenok, errogatiba zein erromeria, jagon eta zaindu beharrezko ondare zerrendan dagoz. Bai. Horren zerrendea be badauka UNESCOk eginda, txukun eta garbi. Danon eskura. Klik batzuk emon eta etxean irakurri eta gozatzeko moduan.

Errogatiban Urkiolara doazenak ez ete dira herritarrek? Bigarren mailako herritarrek ete dira? Zergak ordaintzeko baino ez herritarrek?

"Etorriko da kanpokoia eta aterako etxekoia". Holan esan eutsen behin Zeanuriko Ernestok bere baserrietik joan gura ez eben konbidatuai. Errazoi nahiko berba gitxitan.


Arratian, etxean arrotz? Inoz be ez. Kanpotik datorrenari, Santutxutik zein Saharatik, gurea harrotasunaz opatu.

## ZERTZEAN



AMAIUR SANTOS

## Autokontzientzia



## BEGI TXINDORRA

**A**bere azokak abereai, animaliai, erretratua aterateko aukerea emoten deuskue, desagertuten diranean gogora daigun –geu be ez bagara desagertu– zelangoak ziran.

Maiatzaren 22an Biodibersidade Eguna izan zan eta Greenpeace-ren arabera, zortzi espezieetatik bat desagertzeko zorian dago. Klima aldaketeak gainera, azkartu egingo dau hau, bero-bolada, lehorte eta desertifikazioak. Ekosistema naturalai daukien balioa emoteko konpromiso politikoa ezinbestekoa da.

Klima aldaketa, plastiko inbasio eta biodibersidade barik geure espeziari be gitxi geratzen jako.

Baina politikariak beste leku batera begira dagoz: herrialdeen arteko muga kontuak ditue berbagai.

Argazkia: Zazu Fotografia.



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa**  
hagin klinika  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarribia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bilakia  
T. 94 631 50 39  
Kalegora Zerbaita 900  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Lehendakari Agor 22  
**ETROITZ**  
Agortzen gurek osatzen.



## AREATZA

# Zaplast!koa Areatzan

Emon zaplastekoa eta agur plastikoa.

### Areatzako eskolea

Areatzako eskolako LH3ko ikasleak, "Zaplast!koa Areatzan" lelopean, herriko errekea eta inguruak garbitzeko ekimena antolatu dogu eta helburua da bildutako zaborra kentzea eta ingurumena zaintzearen garrantzia erakustea.

Ikasturtean zehar egindako proiektua biribildutako jardunaldi honek bagilaren 11n izango dau eguna. Eskolako ikasle eta irakasle guztiak hartuko dogu parte, eta deialdia zabaldu gura dogu familiak eta herritarrak egun horretan erreka bazterrek garbitzen animau daitezcan.

Konzienziarino kanpaina honetan, herritar zein ikasleak hitzarmen bat sinatuteko aukerea izango dogu. Honegaz konpromiso bat hartuz: plastikoaren

konsumoa gixitu, berrerabileria sustatu eta birziklapena bultzatzekoa, hain zuzen be.

Goizeko 10:00etan izango dogu zitea eskolako patioan egun horretan. Bertan ekimen honetara batzean diranai azalpen txiki bat emongo jakie eta taldeak egingo dira erreka inguruko zonalde desbardinak garbitzeko asmoz. Bildutako plastiko eta zaborra garbigunera eroango da Udalaren laguntzeagaz.

Aste horretan bertan, ikasleak diseinutako eta Udalak finantziatutako telazko boltsak bananduko dira Areatzako udal txean herritarrentzat. Helburua da, erosketak egiterako orduan boltsa hau erabiltea eta holan plastikoaren konsumoa murriztea. Boltsak ikasleak egindako logoa eta ekimenaren eslogana eroango dabez.



## IGORRE

# Foru Aldundia inputau dabe ama bateri alabea indarkeriaz kentzeagaitik

2017ko abuztuaren 4an, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak indarrez kendu eutsan bost urteko alabea Irune Costumero Igorrekoari, tutoretzea bere gain hartzeako eta behin-behineko egonaldia aitari emoteko.

### Erredakzioa

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak barriz, "delitu zantzuak" ikusi ebazan horretan, eta "ama eta alabea banandu ebazan ebazpena emon eta berau gauzatzeko aginduak emon ebezanen kontrako inputazino-autoa emon

behar dala" joten dau kontrako errekursorik onartzen ez dauan auto irmo baten. Oin amari alabea itzultzea agindu leikion beste epaiketa baten zain dagoz.

Ama-alabak bananduteko errazoiak umea "babesbako" egoeran egoala eta umearen alde egitearren zirala inoen Gizartekintza Sailekoak

autoaren arabaera. Eta gehitzean dau "umeak aitagaz hartu-emonetan ez egoteari deitzean jakola babesbako egoera". Izan be, BFAko Gizartekintza Saileko Haurren zerbitzuaren arabera, berak ipini dau umea aitaren kontra; *de facto* zientziak ukatzen dauan eta legeak onartuten ez dauan Guraso Alienazio Sindromea egotziz. Probintzia Auzitegiak argitzen dau "ume batek aitagaz egon gura ez dauanean atzean aita horren konportamentua" egoten dala.

Umea amari kentzeak, umearentzat eta amarentzat ondorio "suntsigarriak" izan leikezala be esaten dau autoak.

### Probintzia Auzitegiaren inputazino-autoa

Costumerok epai judizial batek emonda eukan umearen zaintza eta Foru Agindu batez kendu eutsien alabea. Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren arabera, gatazka bat konponduteko ezin da inoz "indarkeria erabili" eta Haur Zerbitzuko arduradunak inputau egiten ditu auto irmo horrek. Bizkaiko Foru Aldundiari be "jagokan" erantzukizuna egotzen deutso Probintzia Auzitegiak.

Autoa amaren aldekoa izan bada be, oindino ama-alabak bananduta jarraituten dabe beste epaiketa baten zain.



Irune Costumero.

A graphic advertisement for 'Arratia Ubide eta Zeberio Euskera' featuring a background of black and white diagonal stripes. The text is arranged in a dynamic, overlapping manner. Key phrases include 'Arratia Ubide eta Zeberio euskera eta kulturearen alde', 'Egin zaitez zeu be', 'Degitu-lagun', and 'Hamabostero Degitu zeure etxean'. Contact information for 'Zertu Kultur Elkarteak' is provided at the bottom right, including the address 'Berrito Plaza 21, 48112 Artea', phone number '356 556 756', and website 'www.zertukultur.eus'. The 'begitu' logo is in the bottom right corner.



## ZEBERIO

## Erromeriak bariku eta zapatu gauean Ermitabarriko jaietan

## Erredakzioa

Bariku arrastian txupina bota eta auzuneko jaiak hasikerea emongo deuse Ermitabarrin. Beste batzuen artean, umeentzako puzgarri eta tailerrak egongo dira, erromeriak, herri bazkaria eta Pato Lasterketak. Bezperan, San Antonio egunean ermitan mezea eta barauskarria ez dira faltako.

Domekako Mus Txapelketeak sari potoloak ditu. Izan be, bikote irabazleak 400 euro eroan ahal ditu, eta beste hiru sari be

badagoz. Dana dala, txapelketea 32 bikoterentzat dago prestatuta eta bikote gehiago edo gitxiago agertu ezker, ebatziko da sari gehiago edo gitxiago ipintea.

**Bagilak 13, eguna**  
12:30etan, mezea ermitan.  
13:00etan, barauskarria.

**Bagilak 14, barikua**  
18:00etan, txupinazoa.  
18:30etan, pelota partiduak.  
21:00etan, sardina jana.  
21:30etan, Mugi panderoa erro-

meria taldea.

**Bagilak 15, zapatua**  
12:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak.  
13:30etan, poteoa.  
14:30etan, herri bazkaria.  
16:00etan, plater tiroa, puzgarriak eta umeentzako tailerrak.  
18:00etan, Lurretik Zerura kutxen eskaladea.  
18:30etan, bola jokoa.  
19:30etan, herri merienda eta Aldats Elektrotxarangea.  
22:00etan, erromeria Bidean taldeagaz.  
01:00etan, txokolatea.

**Bagilak 16, domekea**  
12:00etan, helduen Pato Lasterketea.  
12:15etan, umeen Pato Lasterketea.

13:30etan, Euskal Herriko jantzak, Larragako Urnia Dantza Taldea (Nafarroa).

17:00etan, Mus Txapelketea.



## ARRATIA

## Urkiolara errogatibea hilaren 15ean izango da

## Erredakzioa

San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratien errogatibea eguna, aurten bagilaren 15ean. Arratiako eleiza katolikoko parrokiak guztiak antolatuta, oinez, kotxez edo autobusez joan daiteke Urkiolara santutegira. Autobusean joan-etorria zein bueltea bakarrik egiteko izena parrokiaren emon behar da.

Aurtengo lema "Bere antz eta irudiko egin gaitu" izango da eta Joseba Segura Etxezarraga Bilboko Eleizbarrutiko Gotzain Laguntzaileak lagunduko dau mezatan.



## AREATZA/LEMOA

## Bagilaren 15ean zabalduko dabez udako ugerlekuak Lemoan eta 17an Areatzan

## Erredakzioa

Areatzako udako Udal ugerlekuak bagilaren 17an zabalduko dira urri lehenengoaren 8ra arte.

Ugerlekuak goizeko 11:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik sasoi horretan. Prezioak desbardinak izango dira lanegunetan eta jai egunetan. Bonoak egongo dira eta Igorre eta Arteako Udalakaz egindako hitzarmenai esker, Areatzako herritarren moduan pagauko dabe Igorre eta Arteakoak.

## Lemoako ugerlekuak

Lemoan bagilaren 15etik urri

lehenengoaren 15era arte egongo dira zabalik. Goizeko 11:00etan zabalduko ditue ugerlekuak, eta 19:30ean zarratuko bagilean, 20:30ean garagarri-lean; 20:00etan abuztuan eta 19:30etan urri lehenengoan.

Prezioai jagokienean, prezio desbardinak dagoz, norbanakoaren ala familiaren egoerea kontuan hartuta.



## ARRATIA

## Jaietan gaueko autobus zerbitzua egongo da

## Erredakzioa

Aurreko urteetan legez, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Galdakao eta Zornotzako Udalakaz batera, herriko jaietako egun nagusietan, gaueko autobus zerbitzua ipiniko dau doban. Arratia, Amorebieta-Etxano eta Galdakao jentek, kotxea hartu beharrean, autobusa erabili dagian.

Autobus zerbitzua bagilaren 8an jarriko da martxan, Igorreko jaietan, eta urri lehenengora arte, Galdakao jaiak izan arte, egongo da martxan. Amorebieta-Etxano jaietatik bueltetako aukerea be eskainiko da.

## Egun eta orduak

Jaietatik bueltetako autobus zerbitzua, Igorren, jaietako zapatu bietan, bagilaren 8an eta bagilaren 15ean egongo da. Bedian, be zapatuan, bagilaren 22an; Arantzazun 28an, barikuan, eta hurrengo egunean, Diman izango dira. Amorebieta-Etxano jaietatik bueltetako aukerea be eskainiko da.

da zerbitzua: garagarriaren 20an, 24an eta 27an. Atzen egun horretako gauean, Lemoan be egongo da etxera bueltetako autobusa, Lemoako jaiak dira eta. Zeanurin, abuztuaren 14an, eguaztanean egongo da autobusa eta Areatzan, abuztuaren 30ean, barikuan. Amaitzeko, urri lehenengoaren 7an Artean eta urri lehenengoaren 14 eta 21ean Galdakaoetik bueltetako autobusak egongo dira.

Ordutegiari jagokonean, 02:30etan eta 05:00etan hartu ahal izango dira autobusok; Arantzazun eta Artean izan ezik. Herri horretan, 03:30etan urtengo da eta.



## DIMA

## Jentilak Dimaneko ibilbide mitologikoa eta Akelarrea egunez aldatu dabe

## Erredakzioa

Eguraldi txarreko iragarpenak zizala eta, maiatzaren 25erako programata egoan Jentilak Diman jardueretako ibilbide mitologikoa eta Akelarrea egun horretan ez egitea ebatzi eban antolakuntzeak. Asteazkeneko beste jarduerak ez ziran aldatu; ezta maiatzaren 25eko Irintzi tailerra be.

Dana dala, Txumuluxeta alkar-tekoak ibilbide mitologikoa eta Akelarrea beste egun baten egiteko asmoa daukie. Data zehazteko dago.



## IGORRE

## Elikagaiak manipuletako titulazinoa lortzeako ikastaroa

## Erredakzioa

Arratiako Gurutze Gorriak, batez be lanean jatekoak manipulau behar dabena zuzenduta, 6 orduko ikastaroa antolatu dau bagilaren 5erako. Ikastaroak, elikagaien

manipulazinoak Gurutze Gorriko titulazinoa emoten dau.

Eskolak Igorren izango dira, Arratiako Gurutze Gorriko lokalean, 15:00etatik 21:00etara. Izena aldeztetik emon behar da.



## IGORRE

# Hamar eguneko jai egitaraua prestatu dabe Igorren

Umeentzako jolasak, lehiaketa gastronomikoak, kuadrillen artekoak, antzerkia, pelota partiduak, rugbya eta, zelan ez, kontzertuak egongo dira, beste gauza askoren artean, Igorrek prestau dauan jai egitaraua potoloan.

### Erredakzioa

#### Bagilak 7, barikua

**17:00**etatik **18:30**era, ume eta gazteentzako jolasak Zaztapa-rrakaz Goiko plazan.  
**18:30**ean, euskal jantzak ume zein helduentzako Goiko plazan.  
**18:55**ean, argazki herrikoia Goiko plazan.  
**19:00**etan, txupinazoa. Ostein, Larrain jantza Goiko plazan.  
**19:30**ean, Karro karrera Goiko plazan hasita.  
**19:30**ean, Elektrotxufila elektrotxaranga Goiko plazan hasita.  
**23:00**etan, kontzertuak. Skabi-dean and The Black Birds, Bad Sound eta erromeria Akerbeltz taldeagaz.

#### Bagilak 8, zapatua

**08:30**ean, ermitetatik kantu-bira. Jubiladuen txokoa hasita.  
**09:00**etan, neska infantilen futbol 7 torneo Urbieta kirol zelaietan.  
**11:00**etan, Rugby inklusiboa 105eko rugby zelaietan.  
**12:00**etan, Paella eta Pintxo Txapelketea Txosnaguneko landan.



(Aurkezten dan pintxo bakoiteko 3 euro ordaindu beharko da). Saria: Paellarik onenari, 100 euro; Pintxorik onenari, 100 euro. \*Ez da treberarik eta egurrik emongo.  
**13:00**etan, erreka jaitsiera.  
**14:00**etan, pintxo aurkezpena.  
**15:00**etan, paella aurkezpena.  
**16:00**etan, Bizkaiko Rugby 7 kopa 105eko rugby zelaietan.  
**18:30**ean, EinGO taldeagaz kantu poteoa Txosnagune ondoko landan hasita.  
**20:00**etan, Luis Iruarrizaga Abesbatza Kultur Etxean.  
**23:00**etan, kontzertuak. Raust, Mafalda (País Valencià) eta erromeria Zirkinik Bez taldeagaz.

#### Bagilak 9, domekea

**12:30**ean, BatucAKKB, Areatzako Batukada Taldea, herrian zehar.  
**16:30**ean, Bertsopilota Goiko plazako frontoian. Eguraldia txarra bada, kiroldegikoan. Ibai Cimadevilla eta Maren Emaldi-Arrien eta Morgaetxebarria. Imanol Agirre eta Amaia Alday-Olatz Arrizabalaga eta Oier Zearra. Bertsolariak: Iratxe Ibarra eta Arkaitz Estiballes.  
**17:00**etan, umeentzako tailerrak egurrezko tramankuluetan. Txosnaguneko.  
**17:00**etan, 0-3 urte bitarteko umeentzako Txiki-txokoa Txosnaguneko.  
**19:30**ean, *Baserrian jai* umeentzako ikuskizuna. Txosnaguneko.  
**21:30**ean, *Inprotxou* helduentzako ikuskizuna Kultur Etxean.

#### Bagilak 10, astelehena Barraketan umeen eguna

**17:00**etan, bits jai eta uretako puzgarria eskoletan. Eguraldi txarra egiten badau, aterpean.  
**18:00**etan, *Los Impresentables* kale antzerkia 18 urtetik go-

rakoentzat. Agirre Lehendakaria kaleko geraleku atzean.  
**19:00**etan, Astrapalea Rock Eskolareen kontzertua Txosnaguneko.  
**21:00**etan, Zumbathoia Txosnaguneko.

#### Bagilak 11, martitzena

**17:00**etan, Umeen Play-back Lehiaketea Goiko plazako frontoian. Txarra bada, Txosnaguneko.  
**19:30**ean, Arantzarte jantza taldearen saioa Goiko plazako frontoian. Txarra bada, txosnaguneko.  
**21:15**ean, *Txotx* antzezlanak Kultur Etxean.

#### Bagilak 12, eguaztena Barraketan umeen eguna

**17:00**etan, gaztetxoek kuadrillen arteko oka erraldoia Txosnaguneko.  
**18:05**ean, Kiñu's Quiz kuadrillen arteko Lehiaketea Txosnaguneko.  
**19:30**ean, Arratiako Musika Eskolaren emonaldia Kultur Etxeko plazan.

#### Bagilak 13, eguena

**11:00**etan, umeentzako tailerrak egurrezko tramankuluetan Kultur Etxeko plazan. Txarra bada kiroldegian.  
**11:00**etan, 0-3 urte bitarteko

umeentzako Txiki-txokoa Kultur Etxeko plazan. Txarra bada kiroldegian.

**11:00**etatik **14:30**era, Txu-txu trena AMEren eskutik Txosnaguneko hasita.

**12:30**ean, mezea.

**17:00**etan, umeen Karaoke Lehiaketea Txosnaguneko.

**17:00**etatik **19:30**era, Txu-txu trena AMEren eskutik Txosnaguneko hasita.

**18:30**ean, USB poteoa Txosnaguneko hasita.

**21:00**etan, herri afaria Txosnaguneko. Mozorroa: animaliak. Txartelak: Gau Lora, Herrikoa eta Ezkina tabernetan salgai. Azken eguna bagilak 10. Ostein, DJ Elepunto.

#### Bagilak 14, barikua

**11:00**etan, Inazio Zubizarreta herri ikastetxeko triatloia.

**17:00**etan, Tortilla eta Makailao Txapelketea Txosnaguneko landan. (Aurkezten dan tortilla bakoiteko 3€ ordaindu beharko da). Saria: Tortillarik onenari, 100 euro eta Makailaorik onenari, 100 euro. \*Ez da treberarik eta egurrik emongo.

**18:30**ean, tortilla aurkezpena.

**19:00**etan, Cumbiam'bero fanfarrea.

**21:00**etan, Matraka Elektrotxaranga.

**23:00**etan, kontzertuak. Alerta Gorria, Brigade Loco, The Rodeos (Japonia) eta erromeria Gora Herria taldeagaz.



**24:00**etan, Zu Bai Zu Herrikoia.

#### Bagilak 15, zapatua

**11:00**etan, Gurutze Gorriaren ate irekiak. Anbulantziak, itsasoko motorrak, umeentzako puzgarriak eta txorizo-jana, Goiko plazako frontoian. Txarra bada Txosnaguneko.

**17:30**ean, Umore Rallya Txosnaguneko hasita.

**18:00**etan, *Trostan* ume eta familientzako antzerkia.

**23:00**etan, kontzertuak. The Mockers, Xavi Sarrià (Catalunya) eta DJ Isma.

#### Bagilak 16, domekea

**10:00**etan, Kadeteen Txirrindularitza Lasterketa: XXV. San Antonio Saria. Bizkaiko Txapelketea.

**12:00**etan, Ardoa Barrura txaranga herrian zehar.

**13:00**etan, Areatzako Banda Kultur Etxean.

**14:30**ean, jubiladuen bazkaria eskoletako aterpean.

**19:00**etan, jubiladuen alkarteko korua Kultur Etxeko parkean. Eguraldi txarra bada, Txosnaguneko.

**19:15**ean, Jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketetako sari banaketea Kultur Etxeko parkean.

**19:30**ean, Jokaldi taldeagaz erromeria AMEren eskutik Kultur Etxeko parkean. Txarra bada, Txosnaguneko. Bitartean, Kuadrillen Olinpiaden sari banaketea online. Amaitzeko, txokolata.

## Luis Iruarrizaga Abesbatzaren kontzertua Lasarte Aretoan

### Erredakzioa

BBK Abesbatzen Udabarriko Kontzertuen programazioaren barruan, bagilaren 8an, 20:00etan, Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatzak eta Gordexolako Isasiko Amak kontzertua eskainiko dabe Igorreko Lasarte Aretoan. Kontzertu honetan, Igorreko abesbatzak, Arantzarte Dantza Taldea, Marta Díaz Iriondo pianojolea eta Egoitz Mena albokariaren kolaborazioak izango ditu.

Luis Iruarrizaga Abesbatzak, Gordexolako Isasiko Ama eta Portugaleteko Sorozabal Abesbatza izan ditu taldekide BBK Udabarriko kontzertuetako aurtengo edizioan. Taldearen lehenengo kontzertua, apirilaren 13an izan zan Portugaleteko San Kristobal eleizan eta bigarena, maiatzaren 4an, Gordexolakoan. Igorreko Lasarte Aretoan emongo dauan kontzertuagaz amaituko dauz aurtengo udabarriko saioak Igorreko abesbatzak.



## HAUTESKUNDEAK

# Dime Aukeratu plataformearen esku geratu da zein partiduk hartuko dauan alkatetzea Diman

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeak sei alkate barri ekarri dabez gure eremura; Arantzazun, Artean, Diman, Igorren, Ubiden eta Zeanurin, hain zuzen be. Areatzan, Bedian, Lemoan eta Zeberion barriz, oin arteko alkateak jarraituko dabe.



## Erredakzioa

Karguan beteranoena Aitor Sorriketa da, 16 urte daroaz eta. Lemoako Saioa Elejabarrietak hirugarren legegintzaldiari ekingo deutso oingoan. EH Bilduk bost herritan jaso ditu boto gehien eta lau alkatetza lortu dauz. EAJ-PNVk, beste lau. Diman, agintean egon dan EH Bilduk lau zinegotzi izango ditu, EAJ-PNVk hiru eta Dime Aukeratu plataformek bi. Holan, Dime Aukeraturen botoak edo abstentzioa behar ditu EH Bilduk, eta EAJ-PNVk plataformearen botoak aginte makilea eskuratzeko. Ubiden, Ubideko Herri Kandidatureak aginduko dau, bost zinegotzitatik lau lortu dauz eta.

Gure eskualdeko sei herritan alkatea aldatuko dan arren, aurreko legegintzaldian agintean egon dan partidu berekoa izango da Artean izan ezik. Diman, Dime Aukeratu plataformearen eskuetan dago, EH Bilduk jarraitutea ala EAJ-PNVk eskuratzeko alkatetzea.

Asier Aburtok (EH Bildu) hartuko deutso lekukoa Igor Menikari Arantzazun. Areatzan, Asier Garcia (EH Bildu) segiduko dau alka-

tez. Artean, EAJ-PNVko Alberto Intxaurrea izango da alkate; izan be, aurreko legegintzaldian ez bezala, EAJ-PNVk zinegotzi gehiago ditu, EH Bilduk eta Aldatuz Herri Plataformek batuta baino.

Bedian, Aitor Sorriketa (EAJ-PNV) izango da alkatea, atzenengo 16 urteotan legez.

Diman, Jose Mari Atutxa (EH Bildu), Josu Gorospe (EAJ-PNV) edo Koldo Ausmendi (Dime Aukeratu) izango da alkate.

Igorren, EH Bilduk segiduko dau, baina alkatea aldatu egingo da. Illart Gumuzio izango da alkate barria. Lemoan orde, Saioa Elejabarrietak (EH Bildu) jarraituko dau, bere hirugarren legegintzaldiari ekiteko.

Ubiden, Ubideko Herri Kandidatureak irabazi ditu udal hauteskundeak eta Zigor Iturrioz izango da alkate. Zeanurin eta Zeberion EAJ-PNVk lortu ditu zinegotzi gehien. Zeanurin, Eider Ajuriagerrak (EAJ-PNV) hartuko deutso txandea Eusebio Larrazabaleri, eta Zeberion, Karlos Idirinek (EAJ-PNV) jarraituko dau alkate izaten.

## Zinegotziak

Honeek dira herri bakotzeko zine-

gotziak.

## Arantzazu

Asier Aburto Cortes (EH Bildu)  
Adela Perez Perez (EH Bildu)  
Haritza Iturbe Izagirre (EH Bildu)  
Jesus Mari "Txusmi" Etxebarria (EH Bildu)  
Maria Begoña Llano Intxausti (EAJ-PNV)  
Jon Monasterio Lejarazu (EAJ-PNV)  
Olatz Petralanda Artabe (EAJ-PNV)

## Areatza

Asier Garcia Artetxe (EH Bildu)  
Yazmina Beobide Aldape (EH Bildu)  
Maitane Diez Landajo (EH Bildu)  
Iban Simon Iruretagoiena (EH Bildu)  
Jose Ramon Ipiñazar Anibarro (EH Bildu)  
Carmen Taban Tudorache (EH Bildu)  
Damian Agirremota Pujana (EAJ-PNV)  
Itziar Zuloaga Egaña (EAJ-PNV)  
Jesus Maria Atxa Arce (EAJ-PNV)

## Artea

Alberto Intxaurrea Goti (EAJ-

PNV)

Ainare Sanchez Basaguren (EAJ-PNV)  
Gorka Beitia Zurinaga (EAJ-PNV)  
Iratxe Lezeta Ortueta (EAJ-PNV)  
Igor Etxaniz Urrutia (EH Bildu)  
Itsaso Arrizabalaga Arrizabalaga (EH Bildu)  
Iosu Murgia Gonzalez de Mendoza (AHP)

## Bedia

Aitor Sorriketa Larrea (EAJ-PNV)  
Miren Igone Etxebarria Zamalloa (EAJ-PNV)  
Imanol Ispizua Arruti (EAJ-PNV)  
Meritxell Lejarzaburu Atutxa (EAJ-PNV)  
Aitziber Linaza Basaguren (EAJ-PNV)  
Jose Manuel Sanchez San Juan (EAJ-PNV)  
Lurdes Ortega Lahera (EH Bildu)  
Josu Jule Linaza Goikoetxea (EH Bildu)  
Amaia Chantal Arrarte Etxebarria (EH Bildu)

## Dima

Jose Mari Atutxa Olabari (EH Bildu)  
Oihane Barrenetxea Olabari (EH Bildu)  
Borja Ruiz Huerta (EH Bildu)  
Begoña Quevedo Egia (EH Bildu)  
Josu Gorospe Lapatza (EAJ-PNV)  
Iurdana Acasuso Atutxa (EAJ-PNV)  
Ibai Larrinaga Gastañazatorre (EAJ-PNV)  
Koldobika Ausmendi Iturrate (Dime Aukeratu)  
Iratxe Agirre Goikoetxea (Dime Aukeratu)

## Igorre

Illart Gumuzio Larrazabal (EH Bildu)  
Miren Karmele Aurrekoetxea Arkotxa (EH Bildu)  
Ibon Ocerin Bengoa (EH Bildu)  
Maria Jose Soraya Lizundia Sanchez (EH Bildu)  
Jon Koldobika Mendiolaiteia Urkijo (EH Bildu)  
Maite Arrizabalaga Arrizabalaga (EH Bildu)  
Andere Ortuzar Uribe (EAJ-PNV)  
Rakel Barañano Gurtubai (EAJ-PNV)  
Koldo Atutxa Apodaka (EAJ-PNV)  
Maitane Ipiñazar Miranda (EAJ-PNV)  
Jon Zabala Hormaetxe (EAJ-PNV)

## Lemoa

Saioa Elejabarrieta Amorrortu (EH Bildu)  
Eukeni Bikarregi Uriarte (EH Bildu)  
Marian Garay Salutregi (EH Bildu)  
Aritz Undurraga Almaraz (EH Bildu)  
Ioritz Fernandez Garcia (EH Bildu)  
Jon Andoni Perez Bilbao (EH Bildu)  
Iñigo Zuloaga Lopez de Letona (EAJ-PNV)  
Esther Iturrioz Rementeria (EAJ-PNV)  
Mikel Barandika Larrea (EAJ-PNV)  
Zuriñe Etxebarria Zuluaga (EAJ-PNV)  
Iñaki Barrenetxea Iriondo (EAJ-PNV)

## Ubide

Zigor Iturrioz Herrera (UHK)  
Iñaki Beobide Ruiz de Escudero (UHK)  
Aritz Azcorbebeitia Alberdi (UHK)  
Ernesto Villate Gonzalez (UHK)  
Aser Astorgano Martin (EAJ-PNV)

## Zeanuri

Eider Ajuriagerra Arana (EAJ-PNV)  
Mikel Ibarra Martinez (EAJ-PNV)  
Gurutze Etxebarria Zuloaga (EAJ-PNV)  
Nagore Madariaga Paredes (EAJ-PNV)  
Irati Altuna Zuazua (EAJ-PNV)  
Javi Campo Goikuria (EH Bildu)  
Nahia Urrutxua Arriortua (EH Bildu)  
Arkaitz Estiballes Ormaetxea (EH Bildu)  
Mikel Sagarna Agirrezabala (EH Bildu)

## Zeberio

Karlos Idirin Gorrotxategi (EAJ-PNV)  
Beñat Iriondo Petralanda (EAJ-PNV)  
Natalia Martinez Manzarbeitia (EAJ-PNV)  
Jon Etxebarria Nieto (EAJ-PNV)  
Eduarne Intxaurrea Beaskoetxea (EAJ-PNV)  
Laxia Olagorta Gomez (EH Bildu)  
Itziar Aranguren Solatxi (EH Bildu)  
Roberto Calleja Arozeta (EH Bildu)  
Miren Begoña Beltran Agirre (EH Bildu)



# Batzar Nagusietarako EAJ-PNVk zazpi herritan irabazi dau

Erredakzioa

Foru Hauteskundeai jagokienez, udal hauteskundeen aldean, emaitzak desbardinak izan ziran herri batzuetan eta EAJ-PNVk EH Bilduk baino boto gehiago lortu ebazan Areatzan, Igorren eta Lemoan, herri horreetako alkatetzak lortu dituan arren. Udaletarako EAJ-PNVri boto gehien emon eutsien herriak ez eben botoa aldatu Batzar Nagusietarako. EH Bildu barriz, Arantzazun, Diman eta Ubiden nagusitu zan.

Hirugarren indarra Elkarrekin Podemos izan zan, Arratian nagusi diran partidu bietatik oso urrun. Ondoren PSE-EE eta PP, hurrengo hurrengo. Vox-ek eta Ciudadanosek esku-ratutako boto kopurua sano urria izan da.

# Europako Parlamenturako be boto gehien EAJ-PNVk

Erredakzioa

Europako Parlamenturako be emoitza onak izan ebazan EAJ-PNVk maiatzaren 28ko hauteskundean. Izan be, Hego Euskal Herrian legez, gure eremuan be boto gehien jaso eban alderdia izan zan. EAJ-PNV Europa Solidarioaren aldeko koalizioan aurkeztu zan, Geroa Bai, Coalicion Canaria, Compromiso por Galiza, Proposta per les Illes eta Democrates Valencians alderdiak batera. Boto gitxi atera deutzaz ha-ta guzti be, Hego Euskal Herrian hirugarren eta gurean bigarren izan dan EH Bilduri, Orain Errepublikak koalizioan aurkeztu zana ERC eta BNGgaz batera. Hego Euskal Herrian bigarren izan dan indarra, PSOE, laugarrena izan da gurean, Unidas Podemosen atzetik.

	EAJ-PNV			EH Bildu			Alkarrekin Podemos			PSE-EE			PP			
Arantzazu	128 (132)	116 (114)	119	138 (132)	134 (124)	123		11 (12)	11		5 (1)	5		1		
Areatza	262 (336)	331 (328)	312	425 (357)	315 (309)	305		26 (33)	29	13 (14)	19 (14)	24	15 (21)	25 (27)	24	
Artea	239 (210)	245 (237)	236	158 (126)	202 (184)	196		21 (24)	31	1 (2)	6 (4)	8	3	10 (9)	10 77 (AHP) (118)	
Bedia	414 (374)	391 (336)	375	194 (184)	160 (147)	162		33 (47)	29	23 (19)	32 (30)	40	6 (11)	13 (17)	12	
Dima	311 (390)	382 (363)	369	391 (471)	482 (462)	480		47 (39)	43	1 (8)	5 (5)	6	2	5 (5)	2 242 (DA)	
Igorre	1090 (1013)	1182 (1015)	1123	1125 (1127)	921 (1005)	889		81 (103)	99	56 (55)	78 (56)	92	19 (28)	22 (33)	21	
Lemoa	828 (754)	887 (744)	826	904 (956)	735 (781)	695		91 (172)	126	77 (112)	117 (92)	145	22 (31)	30 (35)	28	
Ubide	19 (29)	27 (27)	26		68 (76)	68		3	3		4	4	(3)	(3)	77 (UHK)	
Zeanuri	410 (411)	415 (406)	389	366 (377)	358 (357)	350		14 (24)	31	6	3 (2)	7	2 (3)	8 (7)	6	
Zeberio	395 (345)	379 (361)	364	293 (338)	277 (282)	273		23 (35)	35	3 (1)	12 (3)	13	2 (2)	5	3	

Udala Aldundia Europa

AHP: Aldatuz Herri Plataforma; DA: Dime Aukeratu; UHK: Ubideko Herri Kandidatura.

**EPA**  
Galdakao  
www.epagaldakao.com  
Matrikuletako epea, bagila osoa.  
Tlf. 94 456 60 98  
Helduen heziketa  
E.P.A.  
Elexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2, liburutegia (Lemoa)

**BICIS BIZI**  
Arratiarron dendea  
JESUS CANAS TARAVILLO  
Tel. 94 630 92 20  
jscanas@movistar.es  
Gregorio Mendibil kalea, 12

**Abel Lapatza Iza**  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima  
946 317 252  
608 287 249

**Gure ikastetxeak**  
Euskalduna kalidadezkoa herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza  
Lehen Hezwuntza  
Derrigorrezko Bigarren Hezwuntza  
Batxilergoa  
Hezwuntza Zuzlora  
2 urteko 18ra



**MENDIA****Bueltan da Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea****Erredakzioa**

Urtebeteko geldialdiaren ostean, zazpigarren edizinoak Gorbeia Suzien Kilometro Bertikala dakar nobedade moduan. Lasterketerako izen-emotea zabalik dago RockTheSport plataforman. Hilaren 10ean zabalduko da izena emoteko epea Gorbeia Suzien Kilometro Bertikalerako. Urri lehenengoaren 27an izango da Kilometro Bertikala eta 29an Mendi Lasterketea.

Aurten, Gorbeia Suzien Ternua lasterketea ISF Spain-Andorra Series Txapelketako seigarren eta atzen proba erabakiorra izango da. Eta Gorbeia Suzien Kilometro Bertikala, Euskal Mendizale Federazinoko rankingerako puntuagarria izango da. Kilometro Bertikalak San Justo baseleizatik abiatu eta Lekandako tontorrea izango dau helmuga; 1000 metroko desnibela lau kilometrotan.

**Mendi Lasterketea eta Kilometro Bertikala**

Modalidade bi dagoz, Mendi Lasterketea eta Kilometro Bertikala. Mendi Lasterketeak Zeanuriko herrigunetik urtenda, 31 kilometroko ibilbidea dauka eta 2.400 metroko desnibel positiboa. Gitxieneko altuerak Zeanuri da eta altuerarik handiena Gorbeia (1.481

metro). Gehienez 6 ordu eta 30 minututan egin behar da ibilbidea. Kilometro Bertikala barriz, egun bi lehenago izango da, urri lehenengoaren 27an, hain zuzen be. Distantzia 4,2 kilometrokoa izango da. San Justotik urten eta Lekandako tontorrea (1.309 metro) egongo da helmuga. Gehienez ordu bi eta 30 minututan heldu behar da tontorrera.

**Zazpigarren edizinoak**

2012an aurkeztu zan Gorbeia Suzien jentaurrea. Lehenengo edizino ha Euskal Kopako atzen proba izan zan eta ordudanik hazi eta hazi egin da. 2014an Skyrunner National Championship eta Euskal Kopa hartu ebazan beragan eta hurrezkeron nazino arteko proba izan da. Azken edizinoan Skyrunningeko Europako Txapelketako lasterketea izan zan. Nazinoarteko proba izanda, hamaika nazionalidadeko galapari erakarri ditu Gorbeia Suzienek.

Gizonetan, Ionut Zinck irabazi ebazan Gorbeia Suzieneko aurreneko hiru edizinoak. Manuel Merillas, Luis Alberto Hernando eta Aritz Egea izan dira hurrengo hurrengo atzen garaileak. Andrai jagokienez, Oihana Kortazar, Leire Agirrezabala, Maite Maiora, Laura Orgue, Andrea Gil eta Ingrid Mutter izan dira podiumeko gorengo kajoira igon diranak.

**BOLA JOKOA****Arratiako taldeak sailkapeneko beheko partean amaitu dabe Komarkalaren Txapelketea****Erredakzioa**

Arratiako lau taldek hartu dabe parte aurten Bola Joko Txapelketa Komarkalean; Lemoako Lemoa eta Elorriagak eta Dimako Oba eta San Kristobalek, hain zuzen be. Guztira 11 talde izan dira, Arratiakoaz gainera, Zornotzako zazpi talde. Zornotzako San Miguel tal-

deak irabazi dau Txapelketea.

Gure taldeen artean Obak lortu dau lekuri onena sailkapenean, seigarren eginda. San Kristobal, Lemoa eta Elorriagak zarratu dabe sailkapena, 9, 10 eta 11. postuetan hurrengo hurrengo.

Bagilaren 8an Euskadiko Txapelketea izango da Kexaan (Araba).

**TXIRRINDULARITZEA****Ziortza Isasik irabazi dau Emakumeen II. Klasikoa eta Euskadiko Txapela****Erredakzioa**

Bagilaren 1ean jokatu zan Ugaon, Ugao, Zeberio eta Arrigorriagak antolatutako Emakumeen II. Klasikoa Txirrindularitza proba eta Euskadiko Txapelketea. Ziortza Isasi, hasikeratik pelotoitik igesi eta proba irabazi eban tropelari bost minutuko aldea aterata. Ana Usabiagak eta Mariana Pacolek osotu eben Elite mailako podiuma.

Hogeta hiru urte baino gitxiagoko kategorian Aroa Gorostizak irabazi eban proba eta Euskadiko Txapela. Bigarren Enara Lopezek eta hirugarren Anna Christianek egin eben. Kategoria honetakoak eta elite mailakoak 87,8 kilometro egin behar izan ebazan proba amaituteko.

Juniorrak ordea, 61,2 kilome-

**Ziortza Isasi probako irabazle eta Euskadiko txapelduna.**

troko ibilbidea eukien. Garazi Estevezek irabazi eban proba eta Euskadiko Txapela jantzi eban. Naia Mondarainek eta Ines Carrascok osotu eben podiuma.

Kadetei jagokienean barriz, Naroa Fernandez izan zan azkarrena

proba honetako 53,2 kilometroak beteten. Isabella Escalerak eta Lucia Ruizek egin eben bigarren eta hirugarren hurrengo hurrengo.

Guztira, 12 taldetako 162 txirrindularik emon eben izena Emakumeen II. Klasikoan.

**MARATOI TXIKIA****Lehenengo gizon biak eta lehenengo andra biak eskutik helduta sartu ziran helmugan****Erredakzioa**

Guraso alkarteak antolatuten dauan proba honek kirola eta laguntasuna bultzatu gura ditu umeen artean. Nagusiak eredu, bai lehenengo gizon biak baita lehenengo andra biak eskutik helduta sartu ziran helmugara denpora berean. Iñaki Pujana eta Youness Assehli izan ziran lehenengo gizonak; eta Besaide Astobiza eta Onditz Iturbe lehenengo andrak.

**Bero handia**

Bero handia egin baeban be, ba-

gilaren 2an proba jokatu zanean, urtero lez 200 partaide inguru izan ziran. Edade guztietakoak, txikerrenetik hasita beteranoe-taraino. Partaideak pozik. "Bero

handia egin arren, jenteak pozik amaitu eban proba, bidean ura ipini genduan leku askotan eta" azaldu deutso BEGITURI Imanol Agirre antolakuntzakoak.

**Youness Assehli eta Iñaki Pujana txapelagaz.****FITNESS****Julen Aguilera Areatzakoa hirugarren Euskadiko Fitness Challenge 2019an****Erredakzioa**


Garririk gorako Bodyline (mens physique) kategorian neurtu zan billaroztarrak beste zortzi kirolarigaz eta hirugarren egin eban Sopolako Asier Garcia eta Santurtziko Joel Lopezen atzetik. Fitness txapelketan partaideak gorputza prestatu eta pose batzuek azkar erakusten dabe.

Gernikako Lizeo Antzokian jokatu zan txapelketea maiatzaren 25ean.

Aurten, bertan parte hartzeak ez zala beste neurketarik egin behar izan, azaldu deutso Aguilera BEGITURI. Gura ebanak joan eta parte hartzea baino ez eukan. Billaroztarrak bere kontura prestatu dau gorputza ikasturte osoan zehar.

Euskadiko Fitness Challengera

aurkeztu dan bigarren aldia da, 2015ean be hartu eban parte eta orduan bosgarren egin eban.

**Julen Aguilera.**



## PALEA

# Areatza Bizkaiko Txapeldun Kimu kategoriako palan

### Erredakzioa

Kimu A eta Kimu B kategoriako Irati Ilarregik eta Aiora Arnaizek osotutako bikoteak eta Katalin Lejarretak eta Haizea Iturbek osotutakoak Bizkaiko Eskola Kirolako Txapela lortu eben maiatzaren 11n Sopelan jokaturako finalean.

Irati Ilarregik eta Aiora Arnaizek, Atxondo Esku Pelota taldeko pelotariak nagusitu jakien 0-2 emaitzegaz. Katalin Lejarretak eta Haizea Iturbek barriz, Elorrioko Hori Hori

klubekoari irabazi eutseen 1-2.

### Areatzako Pelota Eskolako pala jokalaria

Areatzako Pelota Eskoleak kategoria guztietan palan jokatuten daben ikasleak daukaz: Benjaminean, hirukote bat; Kimu mailako bikote bi eta hirukote bat; Haur mailan bikote bat eta Kadeteetan hirukote bat, hain zuzen be.

Bizkaiko Kirola Eskolako txapelketan, Areatzako pelota eskolako 15 pala jokalarik hartzean dabe parte.



## PELOTEA

# Danel Elezkanok ez dau buruz buruko finala jokatuko

### Erredakzioa

Danel Elezkanok 22-13 galdu eban Iker Iribarriaren kontra Eibarko Astelena pelotalekuan jokatutako EPELeko Eskuz Banakako Txapelketako finalerdia. Iribarriak eta Mikel Urrutikoetxeak jokatuko dabe finala bagilaren 2an Bilbon.

Hasikeran Elezkanok aurreratu egin zan arren, bardindu egin eban gero gipuzkoarrak. Barrero be aurrea hartu eutsan Dimakoak,

baina ezin izan eban Iribarria bere jokora eroan eta atzenean, galdu egin eban Elezkanok.



## PELOTEA

# III. Biharko Izar Gazteak Txapelketea Zeberion

### Erredakzioa

Zeberio eta Zaratamoko 17 urteko pelotariak hartuko dabe parte eskuz binakako torneo honetan.

Oin arte beti Zaratamon jokatuko izan da, baina aurten, Zaratamon eta Zeberion jokatuko da. Finala Zeberion izango da herriko jaietan, urri lehenengoan.

Txapelketea hamabi aurrelarik eta hamabi atzelarik jokatuko dabe, baina ez da egongo bikote fijoak. Finalerdietara, bi aurrelari onenak eta bi atzelari onenak pasauko dira.

III. Biharko Izar Gazteak Txapelketeak Aspe eta Baiko enpresen babesa dauka.

## PALEA

# Maialen Landajo GRABNIko txapelduna Gazte mailan

### Erredakzioa

Zeanuriko Joko Alai pelota eskolako Maialen Landajok GRABNI Federazioaren arteko Txapelketako Binakako txapela jantzi eban Gazte

mailako Paleta Gomako finala irabazi ostean. Larrabetzuko Irantzu Idoiaga izan eban bikotekide. Finala Biriatur jokatu eben Nafarroaren kontra. Haur mailan, Joko Alai Maialen Bengoetxea eta Lur Olaba-



ri Bizkaiko Txapeldunak izan dira. Oin Euskadikoa jokatuko dabe.

Landajo, 7 urte gaz hasi zan Joko Alain pelotan eskuz eta 8 urte gaz palan hasi zan. 2015ean, Bizkaiko Eskola Kirolako Kimu mailako txapela lortu eban eta 2017an, Gaztetxoak mailakoa. Igaz federatu egin zan eta aurten, 2003ko kadetea izan arren, Gazte mailan jokatuko dau GRABNI Txapelketea eta irabazi egin dau.

### Trinketea, gomazko paleta eta narruzko paleta

Aurten, trinketea eta narruzko paletan hasi da Maialen Landajo. "Palan zentruago nago trinketea baino. Narruzko peloteagaz entretetan be ointsu hasi naz Josu Urkijogaz, eta datorren urtean partiduak jokatuko gurako neukez. Baita gomakoagaz segidu eta ahal bada GRABNIa be jokatuko" dino pelotariak.

## PELOTEA

# Bizkaiko Lau t'erdikoan hiru txapel Arratiara

### Erredakzioa

Maiatzaren 19an jokatuko ziran Derion Bizkaiko Lau t'erdiko Txapelketako finalak, Kadete, Gazte, 22 urte azpiko eta Nagusi mailan. Nagusi mailan, Arratiako pelotari bi aurrez aurre: Dimako Ekhi Ziarrusta eta Lemoako Mikel Aurrekoetxea. Dimakoak irabazi eban eta bera da Bizkaiko Lau t'erdiko txapelduna. Gazte mailan, Zeanuriko Imanol Urigoitiak eta 22 urte azpikoan, Dimako Kimetz Zapikok be jantzi ebezan txapelak.

### Emaitzak

Emaitzai jago kienean, Gazte mai-

lan, Imanol Urigoitiak Ortuellako Liher Kortazarren kontrako partidua 22-19 irabazita lortu eban txapela. 22 urte azpikoan, Kimetz Zapikok 22-21 irabazi eban Beñat Barbararen kontrako finaleko partidu estua. Eta Nagusi mailan, Ekhi Ziarrustak 22-10 irabazi eutsan Mikel Aurrekoetxeari.



## PELOTEA

# Igorrek eta Zeanurik lortu dabez txapelak Arratia-Nerbioi Eskola Kirola Txapelketan

### Erredakzioa

Arratia-Nerbioi pelota eskolen eskuzko Txapelketako finalak jokatuko ziran Igorreko frontoian maiatzaren 19an, Hasibarriak, 2011-2012an jaiotakoak, eta Prebenjaminak 2010-2011 urteetan jaiotakoak kategorietan. Hamabi herriko pelota eskolako umeak neurtzen dira txapelketa honetan.

Hasibarriak A Txapelketan, Igorreko pelotarien artean izan zan finala. Izagirrek eta Orbek, Olano eta Bilbaori irabazi eutseen 18-16. Aurreumetxoak kategoriako B txapela be Igorrerako izan zan.

Izagirrek eta Delgadok Zonotzako eskolako 18-15 irabazita.

Aurreumetxo kategoriako Ako txapela be Arratian geratu zan. Izan be, Zeanurik, Prebenjamin

A Txapelketea irabazi eban, Zaratamoren kontra 18-10. Amets Emaldi eta Gotzon Erkiaga izan ziran txapel hori jantzi eben Zeanuriko pelotariak.





## LEHIAKETEAK

Zeanuriko aire zabaleko  
lehen Margolan  
Lehiaketea bagilaren 9an

## Erredakzioa

Partaideak, gitxi gorabehera 10:00etatik 16:00etara izango dabe Zeanuri edo-eta bere inguruaren gaineko koadro bat pintetako. Euskarria laua eta kolore bakarrekoa izango da. Gehienez 100 x 100 zentrimetrokoa. Teknika egileak berak ebaztiko dau.

Euskarriak 09:00etatik 10:00etara zigilatu eta identifikauko dabez eta 16:00etatik 16:30era entregauko dira egindako lanok. Aurkeztutako margolanak Kultur Etxean ipiniko dira

ikusgai eta 19:00etan bananduko dira sariak.

## Sariak

Kategoria bi egongo dira: helduak, 16 urtetik gorakoak, eta gazteak 16 urte baino gutxiagoak. Helduen kategorian, irabazleak 500 euroko saria jasoko dau eta publikoen saria 200 eurokoa izango da. Gaztetxoaren kategorian, saria, 200 euroko balioa izango dauan material didaktikoa izango da.

Lehiaketea Zeanuriko Kultur Batzardeak antolatu dau.



## EUSKERA

Jubilau ostean, Euskaltegian  
euskera ikasten

## Erredakzioa

Juan Ramon Barrenetxea 68 urtekoa, Pablo Cabañas, 63; Joseba Castro, 67; Javier Díez, 66; Txutxi Díez 67 eta Eustaquia Ortega 67 urtekoak euskera ikasten dabilz AEK-ko Kubulu Euskaltegian. Javier, Joseba eta Eustaquiaren lehenengo urtea da, besteak ikasle beteteranoak dira eta A2 eta B1 mailan dagoz. Motibazioa izan ezker, edozein edadetan ikasi daitezela euskera

erakusten dabe ikasle honeek.

Euskera ikastera bultzatu ebezan errazoiak ugariak dira. Eustaquieren kasuan, jakinmina izan da batez be. "Abesbatzan nago. Kideak oso atseginak dira nigaz eta euskerazko kantuak itzultzen deustez esanguraz jabetuteko. Baina oin astia daukat ikasteko eta ikasi gura dot; horregaitik ekin deustat. BEGITU be irakurri gura dot, oindino ezin dot eta horrek amorrua emoten deusta".



Txutxi Díez, Juan Ramon Barrenetxea, Javier Díez, Eustaquia Ortega, Joseba Castro eta Pablo Cabañas.

Lobakaz euskeraz egitea eta euskera dala Euskal Herriko hizkuntzea be aitaturten dabe euskera ikastera bultzatu dituen errazoiaren artean. Eta Pablok, poesia zalea izanda, euskal poesia euskeraz irakurtea izan dauala akuilu dino. "Niri asko gustetan jata poesia eta Joseba Sarrionaindia, Pello Otxoteko eta beste batzuk euskeraz irakurri gura dodaz".

Motibazioaz gainera, horretarako aukerea emoten deustan denporea daukie oin. Beharrean egon diranean euki ez dabena.

## Ikasgelan gustura

Edadeagaitik gehiago kostetan jakiela eta horregaitik ikasle saiatuak izatean dagoala arrakastarako gakoa, ez etsitzean eta jarraitutean uste dabe. Izan be, euskera ikasteko metodologia, programazioa, materialak, erritmoak eta abar, ez dagoz edadeko ikasleentzat pentsautu eta edadeko ikasleak dira egokitu behar izaten diranak.

Helburuak be desbardinak dira. Ikasle gazteagoak ez bezala, honek ez dabe titulurik behar, eta norberarentzat aberasgarri dalako eta besteak hartu-emonak euskeraz egin ahal izateko gura dabe euskera ikasi.

Ha-ta guzti be, oztopoak oztopo, eroso sentiduten dirala ikasgelan dinoe eta alkarrerri lagunduten deustiela.

## JANTZEA

Sorginen gaineko ikuskizuna eskainiko  
dau Zeanuriko Etxandak jantza taldeak

## Erredakzioa

Zantigitu guztien ganetik... dauka izena Zeanuriko Etxandak jantza taldekoak bagilaren 15erako prestatu dabek ekitaldia. Jantzea, musikea eta bertsoak batzean dituan ikuskizuna, Zeanuriko frontoian izango da, gaueko 21:00etan.

Herritar askok hartu dabe parte proiektu honetan. "Jantzea izango

dau ardatz, baina herriko beste talde batzuetan be jo doguz atek ikuskizuna biribiltzeko, eta hagaitik, txistulariak, trikitilariak, pandero joleak, Esti eta Olatz, umeen jantza taldekoak eta bertsolariak be ikusiko doguz bertan" azaldu deustie BEGITURI Etxandak taldekoak.

## Sorginen gainean

Etxandak jantza taldeko partai-

deak andrazkoak dira danak. Horregaitik ikuskizun honegaz, "San Juan aurretuan", sorgin izatea leporatuta, bazkerkeka, tratu txarrak eta kasu batzuetan heriotzea be sufridu eben andrak gogora ekarri gura dabez Etxandak taldekoak. "Orduko denporetan hainbeste gauzari aurre egin eta bidea zabalduteko indarra erakutsi eben andrai omenalditxo bat egiteko".



**Olaxte**  
Graduazioak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gitxitua  
Begiko tentsioa  
Lentilen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Salino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA**  
eileke  
• Psikologia  
• Logopedia  
• Fisioterapia  
• Ulermen tailerra  
• Jarrera arazoak  
• Emozioen tailerra  
• Psikomotrizitate  
• Adimen emozionala  
• Trebetasun sozialak  
• Estimulazio goiztiarra  
• Eta askoz gehiago...  
652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre  
maite.eileke@gmail.com

**Kili~Kili**  
Antzoki eta Kulturatzeko  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 63 81

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK  
Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 631 64 82 · 906 864 018

**izkaifisios**  
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 35 08  
igorre@izkaifisios.com  
ANDRA MARI KLINIKEA  
Pontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
galdakao@izkaifisios.com



## JAIALDIA

# Indartuta dator Zeberiometal

Eszenaleku handiagoa, musika eta argi ekipo poderetsuagoak eta atzean talde sendoagoa dauka aurten Zeberio metal jaialdiak.

### Erredakzioa

Bagilaren 22an izango da eta eguerdian hasi eta hurrengo eguneko goizaldera arte luzatuko da. Auritz, Bilboko taldea izango da kartelburu. Budasam, Huts, Sinmas eta Ready Aim Fire taldeak osotuko dabe kartela.

Auritz taldea musikari beterranoz osotutako taldea da. Idi Bihotz, OST edo Zenttric taldeetan ibilitakoak, Auritz, Laino eder hori proiektuaren inguruan batu eta Auritz izeneko taldea sortu ebenak. Taldeak, *Auritz laino eder hori* izeneko liburu-diskoa dauka kalean. Liburu gaztelaniaz dago eta diskoa euskeraz. Bertan autismoagaz bizi diran hiru personeren egunerokotasuna eta uniberso paralelo bat kontau eta kantetan dabe. Liburuaren egilea Mikel Bizar da eta kantau talde osoarenak. Ibon Jordane (bateria), Jorge Murillok (bajua), Jabi Guarrotxenak (gitarra), Gorka Bizarrek (gitarra) eta Mikel Bizarrek (abotsa) osotuten dabe taldea.

### Beste taldeak

Budasam talde bilbotarra 2011n sortu zan eta hard-rock estiloko musikea egiten dau. Hiru disko ditu kalean, *Budasam*, *Ensuciando el silencio* eta *Alrededor del sol*. Ivan Gonzalezek (abotsa), Kike Herrerok (gitarra), Ruben Gonzalezek (gitarra eta kora),

Raul Serranok (bajua eta kora), eta André R. Leysenek (bateria) osotuten dabe taldea.

Huts taldea Trapagarango hirukotea da. Igor Cuestak (bajua eta abotsa), Ibai Barriosek (bateria) eta Joseba Dominguezek osotuten dabe. Estilo ugari ditue, punk-rocketik, metaleraino eta disko bi ditue kalean, *Mamuak* (2017) eta *Toxico* (2019).

Sinmas taldea 2003an sortu zan Arrigorriagan, inguruko desegindako bandetan ibilitako musikariak batuta. *Sinmas*, *Fieles*, *4 clavos* eta *Desesperación* diskoak kaleratu ditue. Thrash, hardcore, metal eta punk estiloko musikea egiten dabe.

Bilboko Ready Aim Fire bandea, hard rock klasikoa egiten dau. 2003an sortu zan. Yñigo Diaz de la Campak, Iñigo Charcan-ek, Natxo Ortegak eta Gotxi Ibarrek osotuten dabe taldea.



## IKERGAZTE

# Jaione Ibarrek aurkeztu dau ikerketea Baionan



### Erredakzioa

Maiatzaren 27tik 29ra izan zan Baionan Ikerkete ikertzaile eskaldunen nazioarteko kongresua. UEUK, Udako Euskal Unibertsitateak, antolatuten dauan ekimen honen hirugarren edizioa izan da aurtengoa eta bertan Dimako Jaione Ibarrek bere tesirako egindako ikerketea aurkeztu eban *Testuen irakaskuntza: Genevako sekuentzia didaktikoa tresna eraginkorra gazte eta helduentzat* izenpean.

### Hizkuntza irakasleentzako lan tresna

Ibarra, Euskal Filogogian lizentziadua da eta Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan egiten dau behar Hizkuntza irakasle. Ikerketa honez, testuak irakasteko erabilten daben Genevako sekuentzia didaktikoa eraginkorra dala frogatu dau.

Metodologia hau testu generoak irakasteko erabilten da. Metodologia hau erabilia, ikasleak testuak hobetuten ebezelako eretxia baeukan irakasleak lehendik, baina ikerketa honez egin dauana izan da metodo zientifikoa erabili hori frogatuteko. "Horrek erakusten deusku tresna didaktiko hori eraginkorra dala, ze ikasleen zailtasunak gainditzen lagundu egiten dau, ikasleari gainera emoten deusko autonomia autozuzenketegiteko be" azaldu deusko BEGITURI Jaione Ibarrek.

### Posterren bidezko aurkezpena

Kongresuan egindako ikerketaren aurkezpena poster bidezkoa izan zan. "Lehenengo egunean ipini posterra eta kongresua amaitu arte egon zan. Gero martitzenean tokau jatan aurkezpena egitea. Hiru minutuko aurkezpena izan zan" dino Ibarrek.

Ikerketearen, arlo zientifiko askotako ikerlariak biltzean dira, giza zientzietakoak, zientzia zehatzetakoak, teknologiatxoak... edozein arlotan tesia euskeraz aurkeztu daben zientzialariak, hain zuzen be. Horregaitik, entzule gehienak beste alor batzuetan izango dirala adituak eta ez norberaren arloan kontuan euki eta modu dibulgatiboan egitea komenidu dala dino Dimakoak.

"Atzen egunean hiru persona ikusi nebazan nire posterrean interesautu. Iparraldekoak ziran. Euretako batek be egin eban aurkezpena eta kontau eban Iparraldean euskeraz irakasteko irakasle faltan dagozala eta batzuek ez daukiela euskera maila onik. Berak irakasle horreek euskeraz trebatzen egiten dau behar eta interesa eukan tresna didaktiko honetan".

### Euskeraz ikertzen

Ikerkete nazioarteko kongresua, urte birik behin egiten da. Lehenengo edizioa 2015ean izan zan Durangon eta bigarrena, 2017an, Iruñean eta aurten Baionan. Bertan tesia amaitu barri dabenak, edo orain hiru-lau urte amaitu ebenak edo amaitzeaz dagozanak batu egiten dira, Euskal Herrian eta euskeraz zer ikertzen dan jakiteko eta jakin arazoteko. Izan be, kongresuaren helburua Euskal Herriko unibersidadeetan eta ikerketa zentroetan ikertzen dana, nazioartean eta bertokoai, ezetu arazotea da. "Euskal Herrian zer ikertzen dan jakin gura dogulako, lankide izan daiteken hori ezetu; edozein alorretako izanda be, edozertaz euskeraz jarduteko gai garalako".

Beste helburuetako bat ikertzaileen arteko sarea osotuten lagundutea da eta horretarako mahai-inguru eta aurkezpenez gainera, bisita gidatuak, tailerrak, afaria eta abar be egin ebezan ikerlariak.

## DUNBA

# Cementos Lemonara urtekerea

### Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko ikasleak

Urri lehenengoaren 18an martitzena, Cementos Lemonara lantegia bisitetan joan ginan. Eskolatik oinez joan ginan. Heldu ginanean Elena Guedek, zuzendariak, gela txiki baten sartu ginduzan eta zementua zelan sortzean dan azaldu euskun. Ondoren kalera atera aurretik kaskoa, txalekoa eta betaurrekoak emon euskuezan bisitea egiteko. Gero txu-txu tren baten lantegiko leku desbardinak bisitatu gendu-

zan. Lehenengo, lantegiko errota zaharrena ikusi genduan. Bertan izugarritzko zaratea egoan, baina oso bitxia iruditu jakun. Horren ostean trenera barriz igon eta laborategia, kontrol gela, biltegia... ikusi genduzan. Lantegia ikusi ondoren, hasikerako gelara trenez bueltau eta bertan, Thor magoagaz alkartu ginan. Truko batzuk egin euskuzan. Amaitzeko motxilea eta horregaz batera ur botila bat emon euskuen. Eta eskolara bueltau ginan. Oso ondo pasau genduan... Barriro bueltetako gogoagaz!





## AGENDEA

### BAGILAK 4 ARANTZAZU

Bagilaren 19ra arte, jaietan Play-back Txapelketan parte hartzeako izena emon daiteke Montero tabernan. Izena emoterakoan, egingo dan abestia pendrive baten entregau beharko da izen eta telefono zenbaki batez. Txapelketea bagilaren 29an izango da. Sariak: Umeak: 0-12 urte: 60 euroko kultura bonoa. Gazte/Helduak: 12 urtetik gora Montero tabernan afaria.

### AREATZA

Hilaren 28ra arte, Bono denda erabili ahal da.



### ARRATIA

Bagilaren 24ra arte, AEK-ko udan 15 egun mendiz mendin izena emoteko epea, [ibiltaria@aekeus](mailto:ibiltaria@aekeus) edo [www.aek.eus](http://www.aek.eus) webgunean. Oionetik Lekeitiora ibilaldia garagarriaren 15etik 28ra izango da. Hondarribitik Izabarako ibilaldia abuztuaren 2tik 16ra.



### ARTEA

Bagilaren 14ra arte, udalekuetarako izena emon udaletxean. Udalekuak bagilaren 24tik garagarriaren 5era arte, edo garagarriaren 8tik 19ra. 4-14 urte bitarteko umeentzat.

### BEDIA

18:00etan, Umeen Irakurle Kluba. Miren Agur Meaberen *Bihotzak dun-dun*. Dinamizatzailea Julen Gabiria. Liburutegian.

18:00etatik 18:30era, bagilaren 14ko Jubilatuta eta Pentsionisten alkarteak San Mamesera urtekerarako sarreraren salmentea eskolatan.

### LEMOA

Bagilaren 21era arte, jaietako kirol txapelketetan izena emoteko epea kiroldegian.

Bagilaren 28ra arte, Lemoako XXII. Artisautza Azokan izena emoteko epea, udaletxean.

### ZEANURI

Bagilaren 5era arte, izena emon daiteke Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketarako RockTheSport plataforman.

### BAGILAK 5 IGORRE

15:00etatik 21:00etara, Gurutze Gorriak antolatutako *Elikagaien manipulazioa* ikastaroa, Gurutze Gorriaren titulazioa. Arratiako Gurutze Gorriaren egoitzan.

18:30ean, *Serigrafia* tailerra. Axular Herriko Tabernan.

### BAGILAK 6 LEMOA

19:00etan, Familientzako udalekuen programazioaren batzarra Ludotekan.

### BAGILAK 7 IGORRE

19:00etan, jaietako txupinazoa. Ostein Larrain jantzea. Goiko plazan. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### LEMOA

17:00etan, Ludoteka kalea hartuz. Skate parkea.

19:30ean, Arratia kantuz, Kantu Bat Gara taldea Txoane tabernan.

### BAGILAK 8



### IGORRE

20:00etan, XL. BBK Abesbatzen Kontzertuak.

Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatza eta Gordexolako Isasiko Amaren Abesbatzaren kontzertua, Arantzarte Dantza Taldea, Marta Diaz Iriondo pianojolea eta Egoitz Mena albokariaren kolaborazioak. Lasarte Aretuan.

Goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa doban. Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat.

### LEMOA

09:00etatik 14:00etara, Udalak antolatuta, Natura argazki tailer trinkoa Elizondo Kulturgunean. Izena emoteko atzen eguna bagilaren 6a udaletxean.

10:30etik 14:30era, Lemoatx JB Eguzkitza Meabe Guraso Elkarteak antolatuta, eskolea margoztu. Eskolako patioan.

### BAGILAK 9 ARRATIA

AEK-ko antolatuta, Kirola eta Natura txangoak. Urkiolatik Ipiztera, 14 kilometroko ibilbide zirkularra. Izena [www.praktikatu.eus](http://www.praktikatu.eus) webgunean emon.

### AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, parkeko 25. urteurrena ospatzeko, Gorbeiak kurutzera mendi urtekerea Sarriako Parketxekoak batera. Izena emon [gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus) helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.



### LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, mendi



## Maitasunaren ertzetatik antzerki biajea Areatzako Udal Aretuan

7 Grados taldeak *Y todo por amor* antzezlana eskainiko dau bagilaren 7an Areatzako Udal Aretuan, 19:30ean.

Lanak antzerkia eta kontzertua buztartzen ditu. Itziar Lazkanoren zuzendaritzapean, aktoreak Kim Monzó, Karmelo C. Iribarren eta Roger Wolfen testuak antzeztuko ditue, 3Deviis musikariaren laguntzeagaz.

Antzezlana, ikusleak maitasunaren poliedroaren ertzetatik zeharrekia egin gura dau, publikoaren konplizidatea bilatuz. Maitemintzea, aditu ezina, rol sozialak eta itxaropen faltsuak dira landuten diran gai batzuk.

urtekerea. Legate (830 m.)-Aizkolegi (841 m.)-Azkuia (786 m.).

### BEDIA

17:00etatik 19:00etara, *Sormening* Onditz Mendizabalegaz. 13 eta 22 urte bitarteko gazteentzat. Gaia: jaiak. Paella egunerako umeak egiteko tailerrak eta jokoak prestatzea.

### ZEANURI

09:00etatik aurrera, Pintura Txapelketea aire librean.

### BAGILAK 10 ZEANURI

Gorbeia Suzien Kilometro Bertikalerako izen emotea zabalduen da plazak bete arte edo urri lehenengoaren 10era arte RockTheSport plataforman.



### BAGILAK 11 AREATZA

10:00etan, errekea eta inguruak garbituteko Zaplast!koa ekimena. Eskolako patioan.



### BAGILAK 13 BEDIA

17:00etan, Txiki-Txoko; 18:00etan, udalekuak eta 19:00etan, Uda gaztea batzarrak liburutegian.

### LEMOA

17:00etan, Ludoteka kalea hartuz. Herradura parkean.



### ZEBERIO

Ermibarriko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

### BAGILAK 14 BEDIA

Eleizalde Bediako Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteak antolatutako urtekerea: San Mames-Bilbo. Bazkaria Ibaiondo-Maruri jatetxean.



### BAGILAK 15 ARRATIA

Arratiako eleizak antolatuta, Urkiolara Errogiatiba.

### IGORRE

Goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa doban. Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat.

### LEMOA

09:00etatik 14:00etara, Udalak antolatuta, Natura argazki tailer trinkoa Elizondo Kulturgunean. Izena emoteko atzen eguna bagilaren 13a udaletxean.

09:00etan, Lemoako Txirindulari Elkarteak antolatuta, bizikleta urtekerea. Hautacam. Arlonagusia kantxan.

11:30etik 13:15era arte, Guraso Elkarteak antolatuta, Orienting Arlonagusia plazan.

Udako Udal ugerlekuen irekiera.

### ZEANURI

21:00etan, Etxanderak jantza taldearen *Zantigutu guztien ganetik...* jantza ikuskizuna, txistulari, bertsolari eta trikitaliakaz frontoian.

### BAGILAK 16 DIMA

11:00etatik aurrera, Igitie Azokea. 13:00etan, Txikiren bakarriketea 40 urte eta aldapan behera niek.



### LEMOA

10:00etatik 15:00etara, Escuderia Lancero Classic-ek antolatuta, Ibilgailu Klasikoen Topaketea Arlonagusia plazan.

### BAGILAK 17 AREATZA

Udako Udal ugerlekuen irekiera.





# AKIKMIKO

I  
m  
a  
n  
O  
l  
a  
t  
u



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m<sup>2</sup>, 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

#### BIZITZA BIKO ETXEA SALGAI

Bizitza biko etxea saltzean dot Diman, plaza ondoan. 210 m<sup>2</sup> ditu, hiru solairutan bananduta, lursaila etxe inguruan eta atzean. 635 737 879 (Aiora).

#### MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

#### AIREA GIROTZEKO GAILUA SALGAI

Airea girotzeko gailua saltzean dot, 800 euro, barri-barria. Egurrezko sehaska opari. Interesdunak 620 276 471 telefonora deitu.

### DANERIK

#### TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot,

Sol tonoa balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabilzan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

#### ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

**1** Axpe Goikoa jatetxeak emondako txakolin kutxatxoa.

Igor Menika (Arantzazu)  
Eneritz Atutxa (Lemoa)



**2** Zertu Kultur Elkarteak emondako BEGITUREN kamiseta bana.

Joserra Ipiñazar (Areatza)  
Lur Olabari (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean medu  
**sem**  
@-IG  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tlfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**begitu**  
anaitza utzi eta sartu

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-49-54

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Tel: 94 631 52 83  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
[zekutzejatetxea@hotmail.com](mailto:zekutzejatetxea@hotmail.com)

*Pinturas Anaitia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkaia egin eta bukunduten dogu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE





# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu@topagunea.com

arratia ubide zeberio

Apunta Zaitetz!

94 673 91 16

afara zure talentoa

LAN-MUNDUA

UNIBERTSITATEA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

BATERLEGIOA

EPEI MAILAKO ZIKLOAK

D.S.H.

ONARRIKO LANBIDE HEZKETA

Goi Mailako Zikloak	Fabrikazio mekanikoko diseinua Fabrikazio mekanikoko produktioaren programazioa
Erdi Mailako Zikloak	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta Instalazio elektrikoak eta automatikoak Mekanizazioa
Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloak	Instalazio elektroteknikoak eta mekanikoak Elementu metalikoen fabrikazioa

ZERGAITIK L.H.?

%89

LANERATZEA

Gure heziketa zikloetan %89 baino gehiagoko tituludunak lanera hasita

IKAS + LAN EGIN

FORMAKUNTZA DUALA

Formakuntza Dualaren ikasle kopuru handia Ikas + lan - kontratua

2019  
2020  
2021

KONTRATAZIO BEHARRIZANA

Enpresen kontratazio beharizanak datuen urtetarako

ZERGAITIK ZULAIBAR?

47%

27%

11%

10%

5%

Aurrematrikula 2019- 2020

Ekainaren 3tik- 14ra

Ate irekien jardunaldiak

Maiatzak 29 eta ekainak 6an 18:00etan

Zulaibar Auzoa 17  
48144 Zeanuri (BIZKAIA)  
Tel. 94 673 91 16  
[www.zulaibar.org](http://www.zulaibar.org)

Erasmus+  
Praktikak atzerrian

urratsbat  
Sortu zure enpresa

Aktibo- kolaboratibo metodologia

Fp  
BIZKAIA  
dual  
Ikas eta lan egiteko aidi berean